



ALKIZA ETA HERNIALDE BIZIKLETAZ

Eskualdea ezagutu bizikletaz sailaren baitan, Alkizatik Hernialderako ibilbidea proposatzen dugu >2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-06-27

VIIURTEA 1.739 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Alde Zaharreko batzorde mixtoak bultzatuta, uztailean bilduko dituzte datuak Erretengibelen bulegoan. i.r.

ALDE ZAHARRA NORTASUNAZ ABERASTEKO EKIMENA

TOLOSA Datuak biltzen hasiko dira «Alde Zaharraren inguruan falta den historia osatzeko»; herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete 4

Bartoloak Udalari «planto» egiteko jaiak izango dira


IBARRA Aurten ere Bartoloak antolatu dituzte, «gauzek bide beretik» jarraitzen dutela salatzeko 6



Atzo egin zuten agerraldia hainbat ibarretan. r.c.

Festetako lehen eguneko protagonista haurrak izan dira euren gozamenerako

ASTEASU Jolasak izan zituzten atzo; gaur koadrilen bazkaria izango dute 5



Gaztetxoak puzgarrietan. i.g.

“Eskerrik asko, Vanesa.
Nire bilobaren lehen hitza
entzun ahal izan dut gaur.”

Aitor, 72 urte. Zarautz



Vanesa, GAESko audioprotesista

GAESen lan egiten dugunok, 60 urte daramatzagu entzumen-arazoak konpontzen, profesionalen talde bikain bati esker. Gure zerbitzu integratua eta azken belaunaldiko teknologiak lider bilakatu gaituzte entzumen-sektorean.

Informazio-telefonoa: 902 39 39 40

Zatoz eta ospatu gurekin gure Deitu eta eskatu ordua
ENTZUMENA OGAN AZTERTZEKO
eta opari bat emango dizugu.





Altura dezentean dauden bi herrien arteko ibilbide honek esfortzu handiagoa eskatuko digu; 26 kilometroko luzera izango du; lehen zatia pasa den asteko ibilbidearen berdina izango da.

Alkiza- Hernialde



JOXEMI SAIZAR

Anoetaldeko herriein bukatzeko, Alkiza eta Hernialde bisitatuko ditugu gaur bizikletaz. Altura dezentean daudenez (Alkiza 342 m, Hernialde 302 m) esfortzu handiagoa eskatuko digu gaurko ibilbideak, pinoi handiagok erabiltzera behar-tuz. Ez da, beraz, haur txikiekin egiteko modukoa.

Ibilbidearen lehen kilometroak aurreko bi asteetakoak dira: Tolosatik Anoetara eta Villabonara trenbide eta Oria arteko bidetik, tarte erabat laua. Behin Villabonako Zubimusura iritsita, ezkeraldera jo, Asteasuko bidera. Errepidean trafiko handia izaten denez, duela gutxi inauguratutako Zizurkil-Asteasu bidegorria har daiteke, errepidetik paraleloki dihoana, industria pabilioien artean.

Lehen aldapa handia Alkizara igotzerakoan

Bi kilometro eta erdi eginda ezkeraldera jo behar da, Alkizara joateko (GI-3630). Handik gutxira, Sarasola sagardotegira joateko

Ibilbide honen amaieran, Hernialdetik jaistean, Uzturreren ikuspegi ederra izango dugu

errebuelta itxian hasten da aldapa handia. Aurreraxeago Asteasuren ikuspegi ederra izango dugu, goitik behera begiratuta. Aldapak jarraitzen du, baina bada atsedean hartzeko zelaiune txiki bat. Koldobika Jauregi eskulturgilearen baserri-tailerra pasa eta aldapa handia dugu berriro herriaren kaskoraino. Hemen bidegorria dagoela esan daiteke, errepidea gorritz margotuta baitago. San Martin eliza, udaletxea, eskola, barnetegia eta 1957ko frontoia (eskualdeko



Hirugarren ibilbidean Hernialde bisitatzeko aukera izango dugu, besteak beste. JOXEMI SAIZAR



zharrenetakoa eta gutxi berri-tu dena, pilota zaletasun handia izan arren herrian) ikus daitezke Alkizan.

Hernialdera ere, aldapa gora

Anoeta aldera hartuta, errepidea jarraituz, berehala hasten da jaitsiera handia, segituan errebuelta itxia topatuz. Soaitz auzoa pasa eta geroago zelaiune bat dago, berriro aldapa handia hasteko. Garbigunetik pasa eta azkar aurkituko gara Anoetan. Trenbide gaineko zubia pasa baino lehen eskuinetara jo eta Hernialdera joateko errepidea hartuko dugu (GI-3411). Santio bideko seinaleak daude. Ikastola eta gurutze bat pasatu eta igoera hasten da. Laster Tolosatik datorren errepidearekin elkartu eta eskuinetara joko dugu. Aldapak jarraitzen du, batez ere Elketa jatetxetik plazaraino. Erniozabal frontoia, Asunciongo Andra Mari eliza, ostatua, Ernio bide elkarte eta Santa Kruz apaiza izan zen udaletxea aurkitzen dira plazan.

Jaisterakoan Uzturreren ikuspegi ederra dugu, parean. Aldapa handia dago. Tolosa eta gainetik ikus daiteke, ohituta ez gaude ikuspuntutik begiratuta. Hernialdeko bentan GI-3650 errepidera aterako gara eta handik Tolosara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Herritarren parte-hartzea bermatzeko araudi bat proposatu du Udalak

Tolosa » Udalaren ohiko funtzionamenduan txertatu nahi dute partaidetza; arau izaera eman nahi diote honi.

ESTI EZEIZA

Herritarren parte-hartzea Udal funtzionamenduan txertatzeko asmoz, egitasmo berri bat jarri du martxan Udalak. Hamaika dira herri partaidetzari esker aurrera eramanez diren ekimenak Tolosan, batzutan, Udalarekin elkarlanean, eta beste batzuetan ez. Orain, araudi baten bitartez, denboran iraungo duen dinamika parte-hartzaile bat sortzea erabaki dute, denboraz epe luzean iraungo lukeena.

Administrazioaren eta herritarren arteko harremana gerturatzeko da asmoa. Antton Lekuona Tolosa 2015eko teknikariaren esanetan, «orain arte, erabakiak politiko eta teknikoaren artean hartu dira, eta hemendik aurrera, hirugarren hankak, hau da herritarrenak ere parte hartzea nahi dugun». Gisa honetan, sail bakoitzean aholkularitza kontseilu bat egongo litzateke, eta bertan, herritarren ordezkaritza bat egongo da. Gainera, zuzen zuzenez, «orain arte ere, zenbait departamentutan, herritarrek parte hartzen dute, baina oraingo sistema honekin, modu formalagoan funtzionatuko luke». Izan ere, bileretan biltzen direnak, aholku batzordeko kide diren herritarrek ere jasoko dituzte. Honek, ekimen politikoak ez ezik, herritarren ere jasotzeko aukera izango dute udal teknikariek. Ondorioz, bi norabidetako parte-hartzea egongo litzateke.

Bestalde, sail zehatzetatik at geratzen diren gaiak herri kontseiluan eztabaidatuko lirateke. Udalak aurkeztutako lehen ereduaren arabera, herri kontseilua, aholku batzordeetako ordezkaritza bina, Udaleko alderdi politiko bakoitzeko kide batez eta teknikoek, besteak beste. Sistema berri honekin, herritarrek eskaera bat egiten dutenean, Udalekoak behartuta egongo dira erantzutera, araudi honek, lege bihurtzen baitu parte-hartzea.

Eredua gauzatzeko garaian, hainbat aditurekin, Udaleko langileekin eta Udal ordezkariekin hitz egin dute arduradunek. Dena den, hau proposamen bat besterik ez da, eta herritarrek aurkezten dituzten ideia eta iritziekin, osatuko da.

Udalekoak azaldukoaren arabera, «koherenteak izanaz, modu orokor eta bideragarri bat proposatzen dugu» araudiaren lehen eredu. Honek iraupena ziurtatu behar baitu. Bestalde, argi uzten dute, batzorde hauen lana aholkulari-



Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz Udalak antolatutako beste ekimen bat World Kafea izan zen. HITZA

tzarena izango dela, eta ez dutela erabakiak hartzeko eskumenik izango, legeak ez baitu uzten.

Sistemaren prozesua

2006an geroztik, Udaletxeko Ingegurogi, AG 21 eta partaidetza departamentua Tolosa 2015 prozesuan buru belarri dabil lanean eta orain Partaidetzarako Udal Kontseilua eratzeke unea iritsi dela uste du. Izan ere, Udalekoen ustean, Tolosa 2015 ekintza plana aurrera eramateko ezinbestekoa da herritarren partaidetza.

Parte-hartze sistema aurrera eramateko asmoz, hau erraztuko duen mekanismoa azaltzen den proposamen bat luzatu diete Udalekoek sektore ezberdinetako 500 herritar eta eragilerik, eta ondoren, beraiekin elkartu dira hau aztertzeko. Denera, hil honetan zehar, hiru bilera egin dituzte.

Orain, uztailearen 10era arte lehen proposamenari ekarpenak egiteko epea zabaldua dago. Ondoren, iritzi guztiak bildu, eta ikusten dituzten aldaketak egingo dituzte araudiaren zirraborro horretan. Bigarren testu hori berriro erakutsiko zaie ekarpenak egin di-

tuztenei, eta ondoren, azken emaitza Udal plenoan onartua izan beharko da. Prozesua aurreikusita bezala joaten bada, uda ondoren jendea lotzen hasiko direla uste dute Udalekoek, eta herri kontseilua osatu. Lehendabizi hau antolatuko dute, eta ondoren, sail bakoitzeko aholkularitza batzordeak.

Iurre Peñagarikano Tolosa 2015 sailako zinegotziak azaldukoaren arabera, «prozesu luzea eta konplexua izango da hau». Beraz, araudia onartuta ere, denbora beharko da gauzak antolatzen joateko. Bestalde, garbi utzini izan du Peñagarikano ere, «araudi izena eman badiogu ere, hortik haratago doan gauza bat dela, Udalaren funtzionamenduan eragin handia izango duen proiektu bat baita hau».

Herri kontseiluaren eginkizunak eta helburuak

Herritarren Partaidetzarako Udal Kontseilua berria Udalarentzako, herritarrentzako eta gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko eragileentzako informazio, eztabaida eta adostasun esparru iraunkor gisa egituratuko da.

Esparru horretan, eguneroko funtzionamenduan bitartez parte hartu ahal izango da, edota gai jakin batean zeresana duten beste eragile batzuentzat zabalduko gogoeta guneak sustatuta (lan batzordeak).

Herritarren Partaidetzarako Udal Kontseiluak honako eginkizun zehatz hauek izango ditu besteak beste: aholku organo bezala eta udal politika estrategikoak diagnostikatzeke eta planifikatzeko partaidetza metodo bezala, ekintza plan bat proposatzea, sus-tatzea eta koordinatzea, eta bertan parte hartzea. Baita, parte-hartze-ari dagokionez gauzatutako ekintzen memoriaren eta programen berri ematea, bai haren ekimenez, bai udal erakundeek eskatuta.

Aipatu bezala, herritarren Partaidetzarako Udal Kontseiluaren erabakiek eta proposamenek gumen-dio izaera izango dute Udaleko gobernu organoentzat. Hala ere, gobernu organo horiek azalpenak eman beharko dituzte gomendioak aldatzen edo kontuan hartzen ez dituztenean.

Sanjoanetako sagardo txapelketa egingo dute gaur iluntzean

Tolosa » Berdura Plazan izango da ekitaldia, 19:00etatik aurrera; sagardoa dastatzeko aukera ere izango da bertan.

ERREDAKZIOA

Sanjoanek ofizialki amaitu badira ere, jaiekin lotutako azken ekitaldi bat izango da gaur. Batasuna elkar-teak antolatuta Sagardo Txapelketa egingo dute gaur iluntzean, Berdura Plazan. 19:00etatik aurrera, sagardoa dastatzeko aukera izango da.

Sagardotegi ezberdinetako ordezkaiek kupelak jarriko dituzte eta nahi duen orok edalontziak erosi osten, hauetatik dastatzeko aukera izango du. Oraingo honetan, San Joan saria eskuratzeko lehiatuko dira inguruko sagardotegiak. Honenbestez, sagardoa gustuko duenak Tolosan du hitzorduagur.

Laburrak

Memoria lantzeko tailerra antolatu dute Anoetan

ANOETA • Memoria lantzeko tailer bat antolatu dute Anoetan. Irailean hasiko da eta datorren urteko ekainean amaitu. Saioak jubilatuen egoitzan, asteartetan izango dira 14:45etik 16:45era. Izen-ema-tea udal txaneko edo kiroledegian egin daiteke, hilaren 30a bitartean. Prezioa 6 eurokoa da.

Festen balorazioa egiteko bilera, hilaren 30ean

ANOETA • Herriko festak duela gutxi amaitu dira, eta hauen balorazioa egiteko bilera deitu dute antolatzaileek. Hilaren 30ean izango da, udal txaneko. 18.00etan hasiko da batzorra. Bestalde, Euskal Jaia antolatzen ere hasiko dira astearteko bileran.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Garbiketako orokor, obra bukaerako garbiketako, bulegoak, etxeak, moketak eta alfombrak. Deitu inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbakietara: 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen).

BESTEAK

■ **Pisukide bila.** Eskoriatzan pisua hartu dugun bi neska gara eta bes-

te bi pisukideren bila gabiltza. Irailtik ekainera. Harremanetan jar-tzeko deitu 685 76 03 17 telefono zenbakira edo 688 69 23 69ra.

■ **Tolosako Ciclos Bi-onak tailer-rrak.** Bezereoi jakinarazten die, ekainaren 30ean itxiko dutela en-presa eta jaso gabe dituzten bizi-kleta eta motorrak ezinbestera ja-sotzera pasatzeko ere horren bar-ruan. Orduetgia (astelehentik ostiralera): 07:00etatik 13:00eta-ra eta 15:00etatik 19:00etara.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Alde Zaharrari nortasuna emateko ekimena abiarazi dute

Gizartea » Datuak bilduko dituzte Erretengibelen bulegoan, bertako historia osatzeko; herritarren parte-hartzea eskatu dute.

INIGO TERRADILLOS

Alde Zaharreko batzorde mixtoak bultzatuta Alde Zaharrari buruzko datuak hasiko dira bildzen «honi nortasuna eta bizitza emateko xedearekin». Kaleko bitxikeriak eta pasadizoak bildu nahi dituzte, pertsonaia ezagunak zein ziren jakin nahi dute, nola bizi ziren Alde Zaharreko bizilagunak... Izan ere, ekimenaren bultzatzaileek dioten bezala, «Alde Zaharra herriko gune garrantzitsuenetakoa izanik, bertako eguneroko jardunari buruzko datu historiko gutxi daude bilduta, eta horregatik pentsatu dugu hori errekuuperatzea ezinbestekoa dela».

Ekimen honek bi helburu nagusi ditu: «bertakoek Alde Zaharreko bizilagun izateaz harro sentitzeko arrazoi handiagoak izango dituzte hango historia osatzen dugunean,

eta horretaz gain, kanpora begira, turismoarentzat Alde Zaharraren eskaintza erakargarriagoa izatea lortuko dugu».

Atzo egin zuten kanpaina berriaren aurkezpena, eta bertan izan ziren Kristina Larrañaga Udaleko turismo teknikaria, Mari Jose Carretero Igarondo elkarte-ko lehendakaria, Pedro Tolosa Alde Zaharra Dendak elkarte-ko lehendakaria, Anjel Uranga Erretengibeleko arduraduna eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea.

Herritarren parte-hartzea

Zehazten enpresa arduratuko da Alde Zaharrari buruzko datuak bilduz. Bestalde, herritarrei luzatu diete deialdia ekimen honetan parte hartzeko. Izan ere, aipatu duten bezala, «aiton-amonek, beruzki, xehetasun asko jakin ditzakete Alde Zaharraren bizimoduaren inguruan, eta agian herritar guztiok badakizkigula uste dute, baina ez da horrela, eta horiek kontatzea oso garrantzitsua eta baliagarria izan daiteke».

Gertaera hauek ez dutela zertan oso aspaldikoak izan zehaztu dute



Anjel Uranga, M. Jose Carretero, Jokin Bildarratz, Pedro Tolosa eta Kristina Larrañaga, atzoko aurkezpenan. I.T

ekimenaren bultzatzaileek, guztiak izan baitaitezke interesgarriak. «Nire kasuan, esaterako, betidanik bizi izan naiz Berdura Plazan, eta badakizkit hainbat bitxikeria haren ingurukoak; edo, esaterako, lehen kaleetan zenbakiak egon ordez, etxeek izenak zituzten, horrela bereizten ziren. Horrelako kontuak dira bildu nahi ditugunak», zehazten du Pedro Tolosak.

Herritarrek Alde Zaharrari buruz dakitena kontatzeko aukera dute, beraz, horrela pixkanaka historia osatuz joateko. Erretengibelen bulegoan egingo dute datu bilketa, eta ondoren, Zehazten enpresa arduratuko da datu horiekin historia osatzeaz. Astelehenetik

» DATUAK

■ **Ekimena.** Alde Zaharreko historia osatzeko gertaerak, pasadizoak, bitxikeriak, pertsonaia... bilduko dituzte.

■ **Parte-hartzaileak.** Alde Zaharraren inguruan zerbait kontatzeko duten herritarrei egin diete deia. Herritarrek emandako datuak Zehazten enpresak bilduko ditu.

■ **Datu-bilketa.** Erretengibelen bulegoan (Plaza Zaharra, 10) egingo

aurrera izango dute herritarrek aukera Erretengibelen bulegotik pasa eta euren aportazio txikia egiteko. Uztailean zehar egunero egingo da horretarako aukera, eta abuztua igarota, irailen ere datu

dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara. 943 67 08 92 telefono zenbakira deitu ahalko da edozein kontsulta egin, edota datuak emateko, eta tolosakuttuna@gmail.com helbidea ere erabili ahalko da.

■ **Epea.** Astelehenean hasiko dira eta uztailaren amaierara arte izango da datuak emateko aukera. Irailen ere jarraitzea espero dute.

bilketarekin jarraitzea espero dutela adierazi dute. Hala, zerbait kontatzeko duen herritar oro animatzen dute parte hartzera. «honen guztiaren emaitza guztiotzat izango baita onuragarria».

Gaztetxoei zuzenduriko saioak nagusi, aurtengo Amaro-zko Antzerki Astean

Kultura » Asteartean hasi eta larunbatera arte sei saio antolatu dituzte; auzoko txoko desberdinetan izango dira, dohan.

I. TERRADILLOS

Urtero moduan hemen da Amaro-zko Antzerki Astea. Datorren asteartean hasi eta larunbatera

arte gaztetxoentzako nahiz helduentzako sei ikuskizun ez gozatzeko aukera izango da. Emanaldiak, gainera, doakoak izango dira.

Gaztetxoentzako saioak nagusi

Amarozko Antzerki Artisauak antolatzen dute urtero ekimen hau. Aurtengoa hamaikagarrena izango da, eta antolatzaile taldeko kide den May Gorostiagak azaltzen duen bezala, «batez ere gaztetxo-



Sei talde ariko dira Antzerki Astearen barruan. E. EZEIZA

» EGITARAUA

Ekainak 30, asteartea

■ **17:30.** *Otsa tonto-tontoak* (Maite Franco).

Uztailak 1, asteazkena

■ **19:00.** *Lunatik* (Nanny Cogorno).

Uztailak 2, osteguna

■ **17:30.** *Bolaluma* (Kixka).

Uztailak 3, ostirala

■ **23:00.** *Bazen norbait...* (Kontukantoi).

■ **23:30.** *Cornico de los caminos* (Pablo del Mundo).

Uztailak 4, larunbata

■ **17:30.** *Pailaso titiriteroak* ikusizuna Sebastopoleko titiriteroen eskutik.

entzako emanaldiak izango dira ikusgai». Gorostiagak dioenez, «Amaroz auzoko errealitatea aldatu egin da azken urteetan, handa, lehen gazte gehiago zeuden bezala, egun ume gehiago daude, horregatik antolatu ditugu eurei zuzendutakoak».

Dena den, badira helduei zuzendutakoak, ostiraleko bi saioak alegia: «lehenbiziki afaria antolatu dugu txosnetan, eta joan nahi duenak Ogi Berri okindegiaren 19 euroan lortu ahalko ditu txartelak; ondoren izango da bi saioz osaturiko festa». Bestalde, aurtengo ikuskizun nagusia asteazkenean izango da: «familia guztiak ikusteko modukoa da, Nanny Cogorno argentinarraren *Lunatik*; aurtan azkenean lortu dugu ekartzea hainbat saiakera egin eta gero, beraz, oso gustura gaude, kale antzerkian maisua baita».

Emanaldi guztiak Amaro-zko auzoan, kalean, izango dira, baina berezitasun bezala, lekua aldatuko dute saio bakoitzean, hori bai, parkean egin dute hitzordua. Bestalde, antzerkiak gain, makilaje eta globoflexia tailerra egingo dute asteartean.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatzen dituzte ikuskizunetan parte hartzera.

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Kanariar irletara!

Abian da tropela.net: Tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea doan
hona emateko sari: larunbata, uztailak 4, 10:00an

Laguntza: **hitza**



Sanpedrotan, lehenengo haurrak

ASTEASU • Hasiera eman diete Asteasun sanpedroei eta festetako lehenengo protagonistak haurrak izan dira. Besteak beste, beraien-tzako parkea eta bazkaria izan zituzten atzokoan. Gaurkorako, koadrilek izango dute protagonismoa. Bazkaria izango dute, goizean auzoen arteko futbol txapelketaren ondoren. Arratsaldean, gaztetxoan goitiberak, mus txapelketa, zezen txikiak eta poneyak eta helduentzako jokoak izango dira. Gaurkoarekin amaitzeko Laitozekin erromeria izango da. i.e.

Ezker abertzaleak 'Anoeta Eginez' atera du, bi urteko balantzearekin

Anoeta » Legegintzaldi erdiaren balantze «positiboa» egiten du Periko Peñagarikano alkateak argitalpenean.

dugu gainean». Lanean aritzen ez dietela uzten diote: «Ez dute herri eraikuntzan aritzerik nahi, gu beraien errepresioari erantzutera mugatzea nahi dute, horixe beste-rikez».

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak *Anoeta eginez* aldizkaria argitaratu du eta orain egun gutxi zabaldu du herriko buzoietan. Bertan udal legegintzaldi erdiaren balantzea egin du, hau da, 2007 eta 2009 urtean egindakoarena.

Argitalpenaren hitzaurrean herritarrei azaltzen dienez, ezker abertzaleak «herritarrekin harreman zuzena izan nahi dugu, orain arte bezala. Prest eta gogotsu gaudede eduki ditzakezuen proposamenak jaso eta lantzeko». Ezker abertzaleak, era berean, egungo egoera politikari buruz duen iritzia azaldu du: «gatazkari konponbidea aurkitzen saiatzeko ordez, berriro bazterketa eta errepresioa ekarri dizkigute, azken hauteskunde autonomiko antidemokratikoetan agerian geratu den bezala». Ilegalizazioen inguruan gaineratzen dutenez, «udaletxean aurrez ilegalizazioa izan genuenok, ondoren ere beti ilegalizazioaren mehatxua

Batzordez batzorde

Anoeta eginez-en udalean egindakoaren errepasoa eta aurrera begira dauden errorei buruz mintzatzeko batzordez batzorde. Hirigintza, ingurumena, AHT, gazteria, kultura, gizarte zerbitzuak, kirola eta euskara dira aldizkarian jorratzen diren gaiak.

Periko Peñagarikano alkateari egindako elkarrizketa azaltzen da bertan. Peñagarikano bi urte hauetako balantze «positiboa» egiten du. Alkateak zehazten duenez, denbora horretan gehien aldatu dena «Udalaren eta herriko eragileen arteko harremana, Udal herritar guztientzat irekita izatea, zinegotzien inplikazioa eta herritarren aportazioa» izan da. Bestalde, kezka agertu du «ezker abertzalearen aurkako errepresio bideek ez baitute mugariko».

Gorka Otxoa-Aizpurua Kultura zinegotziak eta Ainitze Etxaniz Euskara zinegotziak pare bat galdera erantzuten dituzte argitalpenean. Besteak beste, Otxoa-Aizpu-



Argitalpenaren azala. HITZA

ruak herrian dagoen «parte-hartze dinamika honekin jarraitzea da gure erronka nagusietako bat» dio. Auditoriuma «oso garrantzitsua iruditzen zaigu», esaten du. Bertan «hainbat ekitaldi aurrera eramán ahal izango ditugu eta herriko dinamika kulturala indartzeko ere balioko duelakoan gauden».

Bere aldetik, Etxanizek azaltzen duenez, «Euskara zerbitzuak orain arte sustatutako erabakien artean esanguratsu eta garrantzitsua, Udalak euskara hutsez funtzionatzeko hartutako erabakia da». Etxanizek gaineratu duenez, «gurea udalerrri euskalduna da eta gure ustez Udalak ere horren isla izan behar du».



Anzaren desagerpena salatu dute

ANOETA • San Joan Bezperan Jon Anzaren desagerpenarekin loturiko ekintza egin zuten Anoetan. Horrekin «hainbeste sufrimendu sortzen duen estatu terrorismoa sutara bota genuen, herri honetatik behin betikoz desagertarazteko», azaldu dute ekintza egin zutenek. «Gerra zikina», «GAL» eta «Estatu terrorismoa» zioten pankartak sutara bota zituzten eta «Sarkozy-Zapatero: Non dago Jon?» zioten pankarta jarri zuten plazan. Jon Anzaren aferarekin Espainiako zein Frantziako estatuek «estatu terrorismoan emaniko jauzia salatu» nahi izan dute eta «honelako gertaren aurrean besoak gurutzaturik geratuko ez garela ohartarazi». HITZA

Udan euskarazko ikastaroak egiteko edo euskara ikasteko laguntzak

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako udalak diru laguntzak emango dituzte uda honetan euskara ikasi edo unibertsitateetan euskarazko ikastaroak egiten dituztenei. Azken honetan, Anoetako Udalak UEUn ikastaro-

ak egiten dituztenei lagunduko die eta Irurako Udalak UEUn eta EHUn euskarazko ikastaroak egiten dituztenei.

Anoetarrek zein irurarrek eskaria egin behar dute bakoitzak bere udaletxean. Horretarako epea

ikastaroa hasi baino lehen edo gehienez ikastaroa hasi eta 15 egun pasatu baino lehen izango da. Ohiko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, tartean euskaltegiak edo unibertsitateak emandako ikastaroaren ziurtagiria.

X. GARAGARDO FESTA ORDIZIA
LIZENTZIA 2.1.1.4.9-Ordiziko "Bert Aiz" Funtzioak 1987/1988

hitza EL DIARIO ANZO

Antolatzaile: Ordizia Rugby Elkartea Laguntzaileak: Ordiziko Udala

Udalari «planto» egiteko jaiak izango dira Bartoloak 09

Ibarra » Aurten ere Bartoloak ospatuko dituzte hainbat ibartarrek herrian «zaharrak berri» direla gogorazteko.

REBEKA CALVO

Ibarrako plazan irudikatutako «Utzikeriaren Museoan» iragarri zuten hainbat ibartarrek aurten ere Bartoloak ospatuko dituztela. «Utzikeriaren Museoan» pasaden astean Elduain ibaian egiten ari diren kolektorearen obrak direla eta suntsitutako XVII. mendeko labaderotik berreskuratutako harriekin eta egurrekin osatu zuten. «Inorekin kontsultatu gabe XVII. mendeko ondare kultural bezela katalogatutako garbigune bat txikitu dute. Errekan eraikitako gipuzkoan geratzen zen garbi-

gune-labadero bakarrenetakoa. Hiru mende eta gehiagoz, uraren indarra jasan duten harri eta egurrek azken urteotan ibartarrok jasan behar ditugun udal ordezkari hauekin egin dute topo», esan zuten zentzu honetan.

Agerraldian abuztuaren 20an hasi eta 25ean bukatuko diren Bartoloak 09 herritarren jaiak izango direla nabarmendu zuten. «Aldarrikapena, jaiak eta elkarlana bultzatuz hamaika ekitaldi eta festa gunea antolatu dugu aurtengo Bartoloetan», aurreratu zuten.

Oraindik ere «ibartar guztiok ordezkatzeko gaituen» Udalik ez dutela osatu ere esan zuten eta ondorioz «herriko gune nagusienean 710 ibartarren bazterketa gainditzeko ez dugu inongo pausurik emango?» galdetu zuten. «Hitz politak erantzuten dituzte, baina bost zinegotzi lapurrek ez dagoz-



«Utzikeriaren Museoan» irudikatutako plazan egindako agerraldian. R. CALVO

kien aulkietan jarraitzen dute», azaldu zuten.

Horiek horrela, Udalak azken hilabeteetan egindako lanaren inguruko hausnarketa ere egin zuten plazan bildutako herritarrek.

Udalbatzak

Udalbatzetan «710 ibartarrek» moziarik sartzeko aukerarik ez dutela salatu zuten, eta baita eztabaidetan parte hartzea eta proposamenak egitea ukatzen zaiela ere. «Ez al da plenoetan parte hartzeko goizeko bederatziak baino ordu

hoberik? Normala al da herri txiki bateko pleno garaiean herritarrek baino armadun gehiago izatea pleno areto inguruan?», salatu zuten.

Azpiegitura mailan Ibarrako Udalak dituen «gabeziak» ere nabarmendu zituzten: «Aurreko legegaldian, herri arauen proiektua ateratzeko gaitasunik ez zuten izan. Aurkeztutako proiektua, inor kontuan hartu gabe eginikoa izanik 1.000 sinadura bildu zituen aurka. Orain berriro hasi direnean, aurrekoaren akatsak eta proiektua bera errepikatzea al da herritarren

etorkizunerako onena? Ez al du gutxienez beste eztabaidarik merezi?».

Hezkuntzari dagokionez «herriko ikastetxe bakarrari» azken urteetan Udalak oztopoak bakkari jarri dizkiola esan zuten.

«Hizkuntzari dagokionez, eskaldunok ez al dugu udalarekiko harremana euskaraz izateko eskubiderik? Bilkuretan inork ez du euskaraz hitz egiten eta diru piloa gastatu ondoren itzultzailearen zerbitzua abandonatua daukate», esan zuten. Kulturaren arloan «talderen bati diru laguntzetako oztopoak jarri ostean, inork eskatu gabeko 40 principales-en kontzerturako 5.000 euro gastatu behar al dira?», azaldu zuten.

«Bazterketaren aurrean: Bartola»

Udalaren osaketa «baztertzaila» salatu eta gero egunerokoak «beraien aurpegia» erakusten duela ere esan zuten. «Ez al da oso erraz ohitzen hainbat jende, bestearen iritzirik kontuan hartu gabe herritarren interesekin nahi den eran jolastera? Eta horretarako igo behar izan zuten adibidez alkatearen soldata 2007tik %39an?».

Aipatu galdera guztiei Udalak erantzuten ez diela ikusirik Bartoloak «planto» egiteko baliatuko dituztela ere azaldu zuten.

Telefonica Azul ontziari aurre hartu diote azken etapan

Ibarra » Xabi Fernandez ontziak, hala ere, sailkapen orokorrean hirugarren postuan jarraitzen du 92 punturekin.

tarraren Telefonica Azul, aldiz, laugarrena. Atzo goizean Fernandezek den Gabri Olivok haxe zioen gau osoan nabigatzen egon eta gero: «Haizebean gaude berriro, gaur goizetik —atzo— bira

asko egin ditugu, beno, gauetik, nahiz eta ez den benetako gaua, ez du erabat iluntzen inoiz». «Puma, Ericsson 3 eta Telefonica Negro asko gerturatu dira Finlandiako kostara eta alde handia atera digute. Ericsson 4 ere atzean utzi dute. Baina bela-estropada ez da bukatu oraindik», gaineratu zuten.

Izan ere, Estocolmotik San Petesburgora doan hamargarren etaparen erdialdean daude oraindik eta orain arteko 8 hilabeteetan ere fin ibili dira Telefonica Azulekoak lanean. Sailkapen orokorrean Ericsson 4 da puntu gehien dituen, 110,5, atzetik Puma dago 98,5 punturekin eta Telefonica Azul hirugarrena da 92 punturekin.



Xabi Fernandez Estocolmotik ateratzekoan.

ERREDAKZIOA

Uste baino gogorragoa izaten ari da Xabi Fernandez ibartarraren Telefonica Azul ontziarentzat Volvo Ocean Race bela txapelketako azken etapa, hamargarrena, hain zuten.

Atzoko proban Puma eta Ericsson 3 ontziek berdinketa teknikoa izan zuten. Telefonica Negro hirugarrena izan zen eta ibar-

San Pedro jaiak gaur, Leaburun eta Urkizun

Jaiak » Gaur hasiko dira Leaburun eta Urkizun San Pedro jaiak; bietan 12:00etan izango dira suziarik.

haurrentzako rokodromo puzgaria egongo da plazan.

21:00etan herri afaria egingo dute eta 23:00etan Xapre eta Zaharra trikitilariak ariko dira. 01:00etatik aurrera ere musika egongo da herrian.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko dituzte San Pedroak Leaburun eta Urkizun. Datozen egunetan, asteleheneko San Pedro eguna bitarte, ekitaldi ugari izango dituzte.

Leaburun gaur, 12:00etan botako dute jaiak hasiera emateko suzuria. Mus Txapelketa 16:30ean izango da eta ondoren, 17:00etan,

Umeen bazkaria eta jolasak ondoren

Urkizun 12:00etan botako dute suzuria eta kanpai jotzea ere orduan izango da, 13:30ean auzoko umeek bazkaria izango dute eta arratsaldean zehar umeen jolasak ere izango dituzte. 21:00etan auzoko afaria egingo dute bertsoari ez eta trikitilarietz lagundurik.

@ Sanjoanak. TOLOSALDEKO ETA

LEITZALDEKO HITZAREN webgunean bukatu berri diren Tolosako San Joan jaien inguruko argazkiak eta bideoak ikusi ahal dira: bordondantzariak, kofradiak, eskopetariak eta erraldoi zein buruhandiak ikusi ahal dira bertan. Bestalde, inkesta ere aurkituko dituzte webgunean, non gaur bertan Tolosan izango den VI. Hitzza Pilota Txapelketako irabazlea zein izango den galdetzen den; Telletxea-Mitxelena bikotea edo Azpiri-Mariaga:

www.tolosaldekohitza.info

Laburrak

San Bartolome jaietan ikurrinak jartzeko deia

IBARRA » Ibarrako Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideek esandakoaren arabera, datorren asteartean, hilak 30, 20:00etan Ibarrako Belabieta kiroldegian abutuko herriko jaietan balkoi, leiho eta txoko guztietan ikurrina jartzeko deia egiteko bilduko dira.

Ohiko bilkura egingo dute asteartean 09:00etan

IBARRA » Ibarrako Udaltzako ohiko bilkura egingo du asteartean 09:00etan. Bertan, besteren artean, Apata industrialdeko tokiko zergen banaketa, Ibarrako presoen familiarako eta lagunen mozioa eta Etxeberri txu baserrirako herri bidearen zati baten jaregitea izango dituzte hizpide.

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Taldeko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

interservice
Servicio BSH de Clientes

BOSCH
SIEMENS
Balay
LYNX
ufesa



Jon Rekondo eta Arkaitz Olano leitzarrek Nafarroako II. Mailako Aizkolari Txapelketaren kanporaketa jokatu dute gaur Donezteben. HITZA

II. Mailako Nafarroako Aizkolari Txapelketan Rekondo eta Olano

Leitza » Rekondoren helburua mailaz igotzea izango da. Olanok iaz baino lasaiago ibili nahiko du gaurko saioan.

ERREDAKZIOA

Nafarroako II. Mailako Aizkolari Txapelketaren kanporaketa jokatu dute gaur Doneztebenko Bearzana pilota plaza irekian.

Lehia 17:00etan hasiko da eta bertan bi aizkolari leitzar egongo dira: Jon Rekondo eta Arkaitz Olano.

Lana eta aizkolariak

Doneztebeko kanporaketan 13 aizkolari ariko dira lanean. Hauek izango dira Nafarroa guztitik

Bear-zanan egongo diren herri kirolariak: Rekondo eta Olano leitzarrek; Luis Mari Belarra (Doneztebe); Juanjoxe Erdozia (Etxarri-Aranatz); Juan Telletxea (Doneztebe); Jexux Etxeberria (Beintza Labaien); Xabier Ariztegi (Etxalar); Xabier Mindegia (Beintza Labaien); Sergio Mandacén (Garralda); Jon Telletxea (Beintza Labaien); Daniel Vicente (Otsagi); Oihan Larretxea (Bera) eta Patxi Mindegia (Zubieta).

David Amillano altsasuarrak esku hartzeko aukera zuen baina min hartuta dagoenez ez da proban egongo.

Ondorioz, 13 aizkolari egin beharreko lana hau izanen da: hiru pago-enbor ebaki beharko dituzte, hots, bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat.

Nor da nor

Kanporaketa honetako lehen 5 aizkolari finalerako txartela lortuko dute. Finaleko data zehaztu gabe aurkitzen da oraindik.

Azken bi sailkatuak berriz, printzipioz maila galduko dute, baina maila ez galtzeko kanporaketa jokatzeko eska dezakete, baita David Amillanok ere.

Donezteben egongo diren aizkolarien artean, iaz Mailla Nagusia galdu zuten Daniel Vicente eta Jon Rekondo agertzen dira. Beraz, eskarmentuagatik bederen, finalerako txartela eskuratu behar lukete. Bestetik, iaz maila ez galtzeko norgegiagoga jokatu zuten Jon Telletxea eta Arkaitz Olanok. Biek azkenean mailari eustea lortu zuten.

Erdoziak eta Belarrak iazko II. Mailako finala jokatu zuten, hiru-

garren eta laugarren sailkatu zirelarik. Patxi Mindegiari dagokionez, iaz III. Mailako txapeldunordea izan zen, eta horrek II. Mailara

II. Mailako kanporaketan 13 aizkolari ariko dira gaur Donezteben 17:00etatik aurrera

igotzea ahalbideratu zion, baita Oihan Larretxeari, maila horretako txapelduna izan baitzen.

Gainerakoei dagokionez, Luis Mari Belarrak eta Xabier Mindegiak ere aukera dute sailkatzeko. Iazko kanporaketa Eulaten jokatu zen, ekainaren 28an, eta saioan aritu ziren 13 aizkolarietatik, Ander Erasun izan zen azkarrena 08:57ko denborarekin.

Aresok gaur jokatu du 600 kiloko lur gaineko txapelketa

Areso » Billelan ospatuko da proba 17:30etik aurrera eta Aresoko taldeak Goiherri A edukiko du areriko.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan hasiko da 600 kiloko Euskal Herriko Sokatira Txapelketa, Billelan (Bizkaia). Hain zuzen ere, txapelketa zazpigarren saioari dagozkio gaurko tiraldiak. Orain arte bi pisuko txapelketak jokatu baitira, 680 eta 640 kilokoak, eta Goiherri A taldeak irabazi ditu biak. 640 kilokoak joan zen igandean amaitu zen, eta Goiherri A-k erabateko nagusitasuna agertu du txapelketa osoan, tiraldi bat bera ere galdu gabe.

Gaurko jardunaldia 17:30ean hasiko da eta bertan aurtengo txapelketetako ohiko taldeak egongo dira: Areso, Gaztedi (Laukiz, Bizkaia), Getxo (Bizkaia), Goiherri A eta B (Erandio, Bizkaia) eta Mutriku (Gipuzkoa).

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 6533212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzar autobus: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Olaberriak brontzea lortu du

Ikaztegieta » Erlojupeko Espainiako Txapelketan Olaberriak hirugarren egin zuen, garaileagandik 10 segundora.

A. IMAZ

Santoñan (Kantabria) Espainiako Txapelketak jokatzeko ari dira. Nahiz eta pistako probak ez izan, bertan da Leire Olaberria ikaztegiatarra.

Banakako erlojupekoan hirugarren postua lortu zuen Olaberriak herenegun, 23 kilometroko ibilbidetan. Urrezko dominatik 10 segundora gelditu zen. Laugarren egin zuen Eneritz Iturriagak ikaztegiatarren denbora bera mar-



Leire Olaberriak pistan bakarrik ez, errepidean ere domina lortu du. HITZA

katu zuen helmugan baina zentesimek Olaberriaren alde egin zuten.

Probaren garailea Debora Gal-

vez kataluinarra izan zen. Bigarren postuan berriz Gema Pascual madrildarra gelditu zen, Olaberriari 6 segundo atera zizkizkilarik.

Gaur jakingo da Leitza Herri Artekoaren finalean egongo den ala ez

A. IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketaren finalerdia jokatu du gaur Leitza Uharteren aurka. Itzulerako partidak izango dira 10:00etatik aurrera Amazabal pilotalekuan jokatu direnak. Guz-tira lau: alebinenak, infantilena, jubenilenak eta seniorrenak. Joane-ko lehian Leitza 10 tantoren aldeko errenta ekarri zuen etxera. Irabazleak finala Iruñea edo Lizarraren aurka jokatu beharko du. Azken garaileak Euskal Herriko Herri Artekoan hartuko du parte.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Areso.** San Pedro festak: 09:30ean gosaria, ondoren eskea baserrietan; arratsaldean jokoak plazan eta ondoren erromeria; iluntzean afaria elkartean eta ondoren musika.
■ **Asteasu.** Koadrilen Eguna: 10:30ean futbol tornea, 14:30ean bazkaria plazan, 16:00etan goitiberak Elizmendin, 17:00etan mus txapelketa frontoian, 18:00etan sokamuturra txiki; 18:30ean helduen jolasak (kanikak eta toka) eta 23:00etan berbena Laiotzekin.
■ **Leaburu.** 12:00etan San Pedro jaien hasiera suziriarekin; 16:30ean mus txapelketa Zazpi Bide Elkartean; 17:00etan haurrentzat rokodromo puzgarria plazan; 21:00etan herri afaria frontoian; 23:00etan Xapre eta Zaharra trikitilariak eta 01:00ean musika.
■ **Urkizu.** 12:00etan suziria jaietara hasiera emateko eta kanpai jotzea; 13:30ean auzoko umeen bazkaria eta umeen jolasak arratsalde osoan zehar; 21:00etan auzoko afaria bertsolari eta trikitilarietara alaiturik.
■ **Zizurkil.** Blusen Eguna Pásus plazan: bazkaria 14:00etan (bakoitzak berea eramanda), ondoren jokoak eta 18:00etan Bonberenea txarangarekin poteoa.



Blues doinuak Plaza Berrian Raimundo Amadorren eskutik

TOLOSA ● Herenegun gauean Raimundo Amador maisuak eman zion hasiera Tolosand blues jaialdiari. Naco Goñiren laguntzaz giro ederra jarri zuten Plaza Berrian, bertaratutako ziren ehunka blues zaleen gozame-

nerako. Gaur ere kontzertu onak iragarri dituzte antolatzaileek; hala, Otis Grand 22:30ean ariko da, doan, plaza Berrian eta Stay blues, berriz, 00:30ean Fronton kafetegian. I. TERRADILLOS

■ **Tolosa.** 19:00etan Berdura plazan Sagardo Txapelketa, San Joan saria, eta sagardo dastatzea.

Musika

■ **Tolosa.** Laskorain abesbatza eta Bartzelonako Els Picarols abesbatzaren kontzertua Santa Klara komentuan 20:30ean.
■ **Tolosa.** Tolosand blues: Otis grand 22:30ean plaza Berrian eta Stay blues 00:30ean Fronton kafetegian.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Zuentzart eskulan dendan, udako eskulan ikastaroak antolatuta dituzte. Taldeak umeei nahiz helduentzako irekiak daude. Izen ematea dendan (Gernikako arbola, 4) edota 676140622 telefono zenbakian.

Zinema

■ **Tolosa.** *Noche en el museo* 2 filma ikusgai Leidor aretoan 19:30ean. eta *Genova* filma 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1.943 673649.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



SARIDUNAK

① 2 lagunentzako otordua

Adunako
Uztartza Jatetxean

UZTARTZA JATETXEA - ATERPETXEA
Herriko plaza, 7 • Aduna
tel.: 943 69 34 81



Uztartza


• Antonio Mugika (Villabona)

② 2 lagunentzako asteburua, gosaria eta zirkuitu termala



AISIA LEKEITIO
Santa Elena etorbidea z/g • Lekeitio (BIZKAIA)
<http://www.aisiahoteles.com>
tel.: 94-6842655

Aisia Lekeitio Hotelean



• Mikel Izagirre (Tolosa)

③ 4 harpidedunentzako disko bana

Mikel Laboa (1934-2008)
CD-DVDA

- Felix Aizpurua (Tolosa)
- Bakarne Telleria (Irura)
- Nati Murua (Alegia)
- Jaione Urdanibia (Tolosa)



④ Produktu ekologikoz osaturiko otarra

Manttangorri
elkartearen eskutik

Tel.: 943 377 945 • Faxa: 943 376 383
www.manttangorri.net
manttangorri@manttangorri.net



PRODUKTU BIOLOGIKOAK

• Maite Aizpurua (Ibarra)

Saridunaren harpidedun txartela aurkeztu beharra dago ziurtagiri moduan. Eskaintza berriak hileko azken astearte, asteazken eta ostegunetan argitaratuko dira.